EUSKALKIAK

ELENA PUEYO NICUESA
FRESKATZE IKASTAROA
MENDIGOITI ESKOLAN

Nola eman sarrera euskalkiari zure ikastetxean?

1. *Egoeraren diagnostikoa egin*

Mendigoiti eskola 2000-2001. ikasturtean sortu zen auzoko hezkuntza eskariari erantzuteko eta kalitatezko hezkuntza eskaintzeko euskaraz. Hasiera batean, beheko eskolarekin batera zegoen, baina handituz joan ahala, goiko eraikuntza prestatu zutenean, Mendigoiti Ikastetxea martxan hasi zen.
Eskola honetan eskaintzen diren ikasketak hauexek dira: Haur Hezkuntzako 2. zikloa (3-6 urte) eta Lehen Hezkuntzako etapa (6-12 urte).
Gaur egun, bi ikastetxe desberdin eskolaren eremu berean daude eta espazio batzuk konpartitzen ditugu (Bata erdaldunentzat eta bestea euskaldunentzat).

Ikasleen tipologia

Gure ikasle gehienen ama hizkuntza (L1) gaztelania da eta bigarrena (L2) eskuratzeko, erabiltzen dugun sistema euskarazko murgilketa da. Horretarako, hasieratik ahozkotasunari bereziki lehentasuna ematen zaio, euskararen erabilpena sustatzeko asmorekin.

Irakasleen tipologia

Irakasle gehienok (tutoreak, espeziakistak, logopedak, orientatzaileak...) behin-betikoak gara. Irakasleok komunikatzeko erabiltzen dugun hizkuntza euskara da. Irakasle gehienok Iruñerrian bizi gara.
Euskalkiei dagokienez, batzuek beren herriko euskalkia badute ere (Baztangoa, Leitzakoa...), eskolan batuaz egiten dute.

Gurasoen tipologia

Auzoko eta ikasleen familietako ekonomi eta kultur maila ertaina da. Familia askotan aitak eta amak etxetik kanpo egiten dute lan. Horregatik, eskolak eskaini eta Gurasoen Elkarteak kudeatzen dituen jantoki eta haurtzaindegi zerbitzuak nahitaezkoak dira.
Guraso gehienak erdaldunak dira, batzuk euskera ikasten ari dira. Dena den, etxean gehienek gaztelania erabiltzen dute.

Euskararen egoera ikastetxean: ereduak, funtzionamendua, inguruaren (herria, eskualdearen) hainbat datu soziolinguistiko.

Lehen esan dudan bezala, Mendigoiti ikastetxea goiko Mendillorrin kokatuta dago eta bi ikastetxe desberdin eskolaren eremu berean daude: (bata erdaldunentzat eta bestea euskaldunentzat). Eraikuntzen, espazioen eta baliabide komunen erabilera bi ikastetxeetarako zuzendariek adostu eta arautzen dute.
Modu berean, beheko Mendillorrin beste bi ikastetxe gehiago daude: bata erdaldunentzat eta bestea euskaldunentzat.
Gaur egun auzoan dauden zerbitzuak bai goiko bai beheko aldean banaturik daude. Gure ikastetxetik gertuago daudenak hauexek dira: Osasun Zentroa, kiroldegia, Kultur elkarte bat, eta hainbat haurtzaindegi pribatu. Proiektatuta dauden liburutegi pribatua eta Bigarren Hezkuntzarako institutua ere auzoko alde honetan kokatuko dira.
Beheko aldekoak, besteak beste, Udal haur Eskola eta Giza-Ongizaterako Oinarrizko Zentroa dira.

2. ***Hasi baino lehen hartu beharreko hainbat erabaki/oinarri***

- **Zein euskalki/aldaera landuko diren**

Eskualde euskaldunean ez dago arazorik, tokiko hizkera bultzatu beharko litzateke, baino erabat desberdina da Iruñerriko edo ingurune ez euskalduna duten eskoletan.

Mendigoiti ikastetxean premiazkoa da euskara batua egitea. Hainbat kasutan euskalduntze prozesua oso zaila suertatzen da eta horretan bai eskolan eta bai etxean ere izugarrizko ahaleginak egin behar izaten dira.

Dena den, zeharkako gaia bezala euskalki gaia lantzea erabaki da aurten zenbait unetan:

- **Kanpaldia** egin baino lehen.
- **"Euskal jaia"** egiten dugunean. Beheko eta goiko ikasle euskaldunak elkartzen dira maiatzeko egun batean euskarak batzen gaitu leloarekin. Koordinazioa ere egin beharko da beheko ikastetxekoekin.
- **Inauteriak** ospatu baino lehen.

- Adostasuna lortu

Jai batzordeak gai honi buruz eztabaidatu ondoren, Batzorde Pedagogiko kideei informazioa pasatu beharko die. Zikloko koordinatzileek ziklora eramango dute eztabaidatutakoa eta ziklo bakoitzak bere erabakiak hartuko ditu.

Normalean horrelako proiektu baten aurrean aldeko jarrera izaten dugu Mendigoiti eskolan.

3. Helburuak

Orokorrak

- Zenbait euskalki ezagutu eta baloratu.
- Ahozkotasuna bultzatu.
- Aniztasuna ezagutu eta baloratu eta honen aldeko jarrera lortu.

Zehatzak

1. zikokloek aurten Goi-nafarrera lantzea erabaki dugu, Arantzan kanpaldia egin behar delako.
Honen arabera hauek dira landu behar ditugun helburuak:

- Goi-nafarreraren ahoskera eta lexikoa ezagutu
- Nafarroako eskualde hori ezagutu.

4. Edukiak: Zer landuko da eulkalkiari dagokionez

- Goi-nafarreraren ahoskeraren entzumenak
- Lexikoa: ipuinak eta esaera zaharrak
- Eskualde horren eta bere ingurunearen ezagutza: geografikoa eta kultur arlokoa, batez ere. (Hango inauteriak...)

5. ***<u>Bitartekoak: Zer behar da helburu horiek lortzeko. Baditugu, bai ala ez? Nola lortu?</u>***

- Goi-nafarrera hitz egiten duen jendea: tokian tokiko euskaraz hitz egiten duena.
- Hango literatura.
- Hango esaerak zaharrak.
- Ipuinak: tokian tokiko hizkerarekin.
- Aipatutako euskalkiari buruzko liburuak: geografia eta kultur arloa lantzeko.
- Ikasleentzako marrazkiak (txotxongiloak egiteko, antzerkia egiteko, margotzeko, ikasleen liburua egiteko).

Baina, zer egin beharko genuke bitarteko hauek lortzeko? Harremanetan jarri beharko genuke bertako udalekoekin, kultur sailekoekin hain zuzen ere.
Beraiek esango digute nora jo beharko genukeen.

6. ***<u>Metodologia: Zer nolako baliabide didaktiko erabiliko ditugu.</u>***

- Kontruktibismo eta ikasketa esanguratsuan oinarritu behar dugu: dakitenetik ez dakitenera.
- Euskalkiak lantzen ditugunean, ahozkoari lehentasuna emango zaio. Ikasleek euskalkia entzungo dute eta irakurriko dute, baina beren produkzioa (ahozkoa eta idatzia) batuaz izango dira.
- Erabiliko ditugun baliabide didaktikoak hauek dira: tokian-tokiko ipuinak, esaera zaharrak, hitzaldiak, informazio orokorrari buruzko liburuak, mozorroak, eskulanak, erakusketak (ikasleek egindakoa), dantzak, kantak.

7. ***<u>Jarduerak eta denboran jarri.</u>***

<u>Kanpaldia egin baino lehen</u>
Aurten kanpaldia Arantzan egin behar dugu. Joan baino lehen halako ekintzak landuko ditugu tokian tokiko hizkera ezagutzeko.

1. Arantzako bat etorriko da eskolara eta Arantza herriari buruz mintzatuko da. (Non dago, zer ospatzen da, zer dago ikusteko…)
2. Tokian tokiko hizkerarekin ipuin bat kontatuko zaie ikaslei. Gero, entzun ondoren, marrazki bat egingo dute.
3. Batua eta Arantzako hizkeraren arteko desberdintasunak. Horri buruzko galderak egingo zaizkie ikasleei.

<u>Euskal festarako</u>
Egun honetan beheko eskolako ikasle euskaldunak eta goiko ikasle euskaldunak elkartuko dira, euskalkiaren gaiaren inguruan.
Iparraldeko goi-nafarrera aukeratu dugu aurten, zonalde horretan kanpaldia egin behar dugulako.
Bi eskolen arteko koordinazioa ezinbestekoa da.

2. ***mailarako jarduerak:***

1. Tokian tokiko hizkeraz ipuin bat kontatuko zaie.
2. Ipuineko pertsonaia margotuko da eta bakoitzak txotxongilo bat egingo du.
3. Ipuineko antzerkia egingo dute (tokian tokiko esaera zaharrak erabiliz)
4. Patioan zonalde horretako jolasak antolatuko dira.
5. Eskualde horretako pailazoak eta magia egiten duen bat etorriko da eskolara arratsaldea ikasleekin emateko.

<u>Inauteri egunerako</u>

1. Zanpantzarrez edo Joaldunez mozorratuko gara.

Gelan ttuntturroak eta isopa egingo ditugu.

2. Ituren eta Zubietan nola ospatzen diren inauteriak (bideo baten bidez)
3. Ikasiko duten Joaldunen dantza eta eskolako desfilean dantza egingo dute.

9. Ebaluazioa

Jarduera hauek burutu ondoren, zikloka irakasleek baloratuko dituzte eta hurrengo ikasturterako proposamenak egingo dira. Koordinatzaileak festa batzordekoekin elkartuko dira horri buruzko ebaluazioa eta hobekuntzak egiteko.